



## 1. Ahoan hasi eta belarrira

Hala dio *Bularretik Mintzora* egitasmoaren kartel baten leloak. Bi kontzeptu gordetzen dira lelo honen baitan: zuzeneko komunikazioa lehenestea “helduaren ahotik haurraren belarrira”, eta haur txikiak entzumenaz baliatzen direla beren mundua ezagutzeko. Kultura guztiek funtzio eta forma berdintsuko jolasak eta kantak sortu dituzte beren haurrekin komunikazioa bideratzen hasteko. Jolas eta kanta hauek haurraren hizkuntz lorpenean eta, honekin batera, bere garapen kognitiboan lagungarri paregabeak dira. Euskal Herriak folklore aberatsa du, eta era horretako egitura asko ailegatu dira guregana. *Bularretik Mintzora: poesiak, kantak eta ipuinak* liburu-diskoan, horien bilduma bat azaltzen da, helduok ikasi eta inguruko haurrekin batera, behin eta berriz jolasean aritzeko. Webgunean badituzue zenbait adibide gozatzeko.

## 2. Hitzarmen berria

Otsailaren 7an, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren barruan, Galtzagorri Elkartek Kultura Saila eta Osakidetzarekin elkarlanean burututako [ekimen berri bat aurkeztu zen Gurutzetako Ospitalean](#). Honi esker, EAEEn 2011 urtean jaiotzen diren haur guztien gurasoei *Bularretik Mintzora: kantak, poemak, ipuinak CD-liburua* oparitzen zaie, hainbat gomendiorekin batera.

Ekimen honekin 0-2 urteko haurrengan eragiteko ate berri bat ireki dugu, geroago beste esparruetara zabaltzeko ahalbideratzen diena: liburutegira, eskolara... Beraz, 0-2 adin tarteko haurren etxeetan sartzeko aukera bat zabaldu zaigu, eta, honekin batera, erronka berri bat gure egitasmoa bere osotasunean zabaldu ahal izateko. Izan ere, liburu-disko honen baliabideak (kantak, poesiak, hitz-jolasak, soinuak, erritmoa...) estimulazio goiztiarraren tresna ezin hobeak dira: haurraren zentzumenak suspertzez gain, haur txikiekin komunikatzeko egokiak baitira. Eskaintzen diren pieza hauek haurrek identifikatu eta ulertzen dituzten heinean, haurrak hizkuntza bereganatzeko, zein bere ingurunea kokatu eta ezagutzeko lagungarriak dira.

## 3. Motxila ibiltariak

Eskola, etxea eta liburutegia lotzen dira irakurketa ekimen honetan. *Bularretik Mintzora* egitasmoa martxan dugun herrietan burutzen dugu ekintza hau. Ikastetxeetan 3, 4 eta 5 urteko gela bakoitzak [motxila txiki](#) bat du. Txandaka, haur bakoitzak eramango du motxila hori, gurasoekin batera, herriko liburutegira. Bertan, nahi duen liburua aukeratuko du, motxilan sartu eta maileguan etxera eramateko. Etxean, gurasoekin begiratu eta irakurri ondoren, eskolara eramateko ordua da. Aste betean izango da liburu hori gelako liburu gonbidatua. Behin eta berriz begiratuko diote denek, askotan kontatu eta irakurri, haurrak liburu interesgarri bat aukeratu badu bederen.

## 4. Ongi pasatzeko

Haurrentzako idatzi eta editatzen hasi ziren lehenengo liburuak alfabetoak, entziklopediak, ohitura onak gomendatzen zituzten liburuak eta gisa horretakoak izan ziren. Horietako batzuk arte lanak bilakatu dira, hizkuntz jolasa izateaz gain, eredu estetiko paregabeak izanik. Adibide bezala ezagutu dezagun bat: *ABC. Marion Bataille. Kókinos, 2008*. Gainera, jolaserako aitzakia ugari eskaini ditzakete: oraingoan Oñatiko haur batzuk izan ditugu jolaskide [jolas, molas...](#)